Gizatasuna Inpartzialtasuna Neutraltasuna Independentzia Boluntariotza Batasuna Unibertsaltasuna

Gurutze Gorria

www.cruzroja.es 902 22 22 92




## GIB eta hieseko erantzunaren aurreko Nazioarteko eguna

**Pertsonengandik gero eta hurbilago** Gurutze Gorria

## Zer da GIB? Eta ihesa?

**GIB** (Giza immunoeskasiaren birusa): sistema immunologikotik (infekzioetatik eta gaixotasunetatik babesteaz arduratzen dena) zelula jakin batzuk deuseztatzen dituen birusa da.

**Ihesa** (Hartutako immunoeskasiaren sindromea): GIB infekzioaren ostean, gorputzak jasaten dituen infekzioek/gaixotasunek eragindako sintoma multzoa da.

## Nola transmititzen da eta ekiditen da GIB?

### Sexuaren bidez

**Arriskuzko jokaerak:** Uzki-, bagina- eta aho-sarketazko (ahoa jartzen duenarentzat) sexu-harreman aktiboa, preserbatiborik gabe edo hura apurtzea.
**Jokaera segurua:** Preserbatiboa erabiltzea sarketazko sexu-harremanetan. Sarketarik gabeko sexu-harremanak izatea. Pertsona berarekin izatea sarketazko sexu-harremanak, bietako inork ez duela GIB ziurtatuta (GIB proba eginda).

### Odolaren bidez

**Arriskuzko jokaerak:** Objektu ebakitzaileak edo zorrotzak eta injekzio-materiala trukatzea.
**Jokaera segurua:** Objektu ebakitzailerik edo zorrotzik ez trukatzea, ezta injekzio-materialik ere, edo esterilizatu direla ziurtatzea.

### Amaren eta seme-alaben artean (bertikala)

**Arriskuzko jokaerak:** Haurdunaldian, erditzean edo edoskitzean.
**Jokaera segurua:** GIB proba egitea eta jarraipen medikoa egitea. Zesarea bidez erditzea. Edoskitzea saihestea.

**GIB EZ da transmititzen eguneroko jardueren bidez: musu emanez, besarkatuz, eskua emanez; janaria partekatuz, bainatuz, dutxatuz, igerilekuan, arroparen bidez…; ez da intsektu baten koskarekin ere.**

**Arriskuzko praktikaren bat izan baduzu, egin GIBaren proba. GIB bidez infektatu zaren edo ez jakiteko modu fidagarri bakarra.**